



EDIKTUA

Honen bidez jendaurrean jartzen dira honako tasa eta aprobetxamenduen zergadunen erroldak: **AISIALDIKO IKASTAROAK, 2018-2019 ikasturteko bigarren kuota** (zenbatekoa: 1.000 euro), **2018 urteko laugarren hiruhilabeteko KAMIOIEN UDAL APARKALEKUAREN ERABILPENA** (zenbatekoa: 1.564,80 euro), **2018 urteko PASABIDEAK** (zenbatekoa: 1.776 euro) eta **2018 urteko HERRILURREN APROBETXAMENDUAK** (zenbatekoa: 4.258,13 euro). Likidazio hauek 2018ko abenduaren 11ko 312, 313, 314 eta 315 zenbakidun ebazpenen bidez onetsi ziren hurrenez hurren (AJAren 41,18 artikuluan xedatutakoa betez).

Halaber, honen bidez ezartzen da borondatezko diru-bilketarako epea eta modua.

Ordaintzeko borondatezko epea: 2018ko abenduaren 11tik 2019ko urtarrilaren 24ra arte.

Ordaintzeko modua: Helbideratutako erreziboak kontuan kargatuko dira 2018ko abenduaren 26an eta helbideratu gabekoak udaleko banku-kontuetan transferentzia eginez edo www.olazti.com web orriaren bidez ordain daitezke. Dirusarrera egiteko ezarritako epea igarotzen bada ordainketa egin gabe, prozedura exekutiboa ireki eta Tributuiei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 117. artikuluan ezarritako errekarguak gehituko zaizkio.

Zergadunen zerrenda jendaurrean jartzea ondoko arau hauen arabera egingo da:

1.- *Tokia:* zerrenda udal bulegoetan jarriko da ikusgai interesatuen esku.

2.- *Aztertze epea:* Hilabete bat ediktua Olaztiko udaletxeko iragarki taulan jarri eta biharamunetik hasita.

Epe hori bera ezarriko da desadostasuna adierazteko.

3.- *Zein organoren aurrean errekurritzen den:* Olaztiko Udaleko alkate udalburuaren ordezkariaren aurrean.

4.- *Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udaleko sarrera erregistroan, bulego orduetan.

5.- *Errekurtsuak:*

a) Hilabeteko epean, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, egintzaren organo egileari zuzendua edo, aukeran, GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.

b) ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua; alabaina, 29/1998 Legeko 8.1. artikuluan zehaztutako kasuetan, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzenduko zaio errekurtsua.

6.- *Errekurtsua jartzearen ondorioak:* Errekurtsuak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak ezartzeak ez du etengo aurkaratu den egintza horren betearazpena, horrek dituen legezko ondorioekin, eta egintza horien barruan daude kuoten, likidatu diren eskubideen edo korritu eta errekarguen bilketa.

Olaztin, 2018ko abenduaren 11n.

ALKATEA,
Mikel Azkargorta Boal.